

# **BIZIKI, BASERRIKO ESNEKI ONURAGARRIA**


*Legeria, Deontologia eta Kudeaketa*

*Giza Nutrizio eta Dietetika Gradua*



*2019-2020*


2. taldea: Uxue Goienetxea, Maddi Manterola, Iker Pelaz eta Itsasne Zipitria


Produktu bat merkatalizatzeko aspektu batzuk izan behar ditugu kontuan, segurtasuna eta higiena baita jasangarritasuna ere. Etiketatuan ere hainbat zehaztasun agertu behar dira. Azkenik, propolioaren eraginkortasuna aztertuko dugu.




Elikagaiak merkaturatzeko eta manipulatzeko, hainbat lege izan behar dira kontuan. 852/2004 (EE) Erreglamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29ko legeak ezartzen duen bezala, higiene baldintza jakin batzuk bete behar dituzte. Legeak nagusiki higinearen garrantzia aipatzen du. Mirenek azpimarratu digu egunero garbiketa arina egingo duela (eta astean behin sakonago bat), baina kasu honetan ez da nahikoa, eta egunero egin beharko du garbiketa sakon bat. 

Lehenik eta behin, elikagaiak manipulatu dituzten langileen osasuna ona dela bermatuko da; eta osasun-egoera eta osasun-arriskuei buruzko prestakuntza jasoko dute. Hortaz gain, Mirenek beste hainbat akats egiten ditu: leihoak irekita utzi; garbiketa produktuak eta mamiak gela berdinean eduki; eta zaborra estalkirik gabe eduki. Modu honetan, produktuak kutsatzeko aukera handitu egiten da. Bestalde, langileek aldagela egokiak eduki behar dituzte eta Mirenen instalazioak ez du baldintza hau betetzen.

Mirenek irizpide hauek betetzen ez baditu ere, beste hainbat betetzen ditu: Produktua produzitzeko tenperatura jakinak errespetatzen ditu errefrigerazio hozkailuen bidez. Horrela legalki beharrezkoak diren tenperaturaren eta presioaren kontrola eramaten da. Gainera, konketak daude, eta hauek beharrezkoak dira, bai eskuak garbitzeko, bai elikagaiak garbitzeko. Berstetik, argi naturala beharrezkoa dela dio legeriak eta bi leiho handi dituen, argi naturala sartzen da, honi, argi artifiziala gehitu behar diogu. Bestalde, 2073/2005 legeak dio, hainbat azterketa mikrobiotiko igaro behar dituztela, *enterobacter* duten edo ez egiaztatuz; eta Mirenek ez du hau betetzen.  

Produktuaren jasangarritasuna ingurunean eragiten duen eraginaren arabera da. Gizartearekiko erantzukizuna, enpresek beren merkataritza-eragiketetan eta solaskideekiko harremanetan, gizarteko kezkak eta ingurumen-kezkak borondatez sartzeari da. Jasangarritasuna eta gizartearekiko erantzukizuna ez da islatuta ikusten, izan ere, energia ez da iturri berriztagarrietatik eskuratzen eta ez da gizartearekiko erantzukizunetik aipatzen. Ondorioz, zenbait hobekuntza egin daitezke, energia iturri berriztagarritasunetik eskuratzea, nola hala eguzki plaken instalazio bat egitea. Gizartearekiko erantzukizun bat erakusteko, diruaren zati bat ONG-eri ematea ondo egongo litzateke; eta sobratutako janaria edo saldu ezin dena jantoki sozialei. 

Elikagai-etiketei dagokionez, salgai dagoen produktuan jartzeko, derrigorrez bete behar diren lege batzuk daude. **Uztailaren 31ko, 1334/1999 Errege Dekretuak**  *elikagaien etiketatze, aurkezpen eta publizitateari buruzko arau orokorra onartzen du.* 5. artikulua etiketei buruzko nahitaezko informazioa ematen du, zenbait baldintza ezarriaz. Mireen etiketak ez ditu baldintza guztiak betetzen, etiketan ez dira kontserbazio eta erabilerako baldintza bereziak eta saila (lotea) agertzen. Osagaien zerrenda osagai guztien aipamenak osatuko dute, pisuen beheranzko hurrenkeran, eta hau ez dago horrela etiketan. Bestalde, zehaztutako osagaien kantitatea ageri ez denez, 8. artikulua hautsi egiten du. 3. artikulua hanitzakotzat hartuta, osagaia, elikagai bat prestatzeko erabiltzen den edozein substantzia da beraz prepoiea osagaia da. Propolioarekin jarraituz, 10. artikulua arabera (Pisu garbia), ontziratutako elikagaien pisu garbia masa-unitateetan (kilogramo edo gramoetan) adierazi beharko da, eta etiketan, propolioaren masa miligramoetan adierazita dago.

Beste hainbat elementu ere badaude etiketan, **Uztailaren 31ko, 1334/1999 Errege Dekretua**  aintzakotzat hartuz, Etiketa erdialdean %1 gutxiago ikurra ageri da, baina ez dio ezerri erreferentziarik egiten. Hori dela eta, aurretik aipatutako legearen 4. artikulua (Printzipio Orokorrak) lehenengo araua hautsi egiten du: etiketek ez dute eroslea nahasteko moduko izaerarik izan behar. Bestetik, “behi-esnea baino liserigarriagoa” esaldiak gaur egungo araudia hautsi egiten du, mamiak ezaugarri bereziak dituela iradokitzen baitu, antzeko produktu guztiek (behi-esneak adibidez) ezaugarri berdinak dituztenean. Gainera, elikadura-produktu bati giza gaixotasun propietate prebentiboak, terapeutikoak edo sendagarriak esleitzea debekatuta dago.  

Azkenik, Mirenek proposatzen du propolia gehitzea osagai onuragarri gisa. Hantura eta ahoaren barruko zauriak tratatzeko erabiltzen da, hauek tratatzeko ebidentzia zientifikoetan oinarrituta baliteke eraginkorra izatea. Beste milaka hobekuntzetarako ere erabiltzen da, baina ez dago ebidentzia zientifiko onik erabilera horiek bultzatzeko. Elikadura Segurtasunerako Europako Agintaritzaren iritziak (EFSA), ziurtatzen du ez dagoela propolia probatzearen frogarik. Gainera, EFSaren irizpideen izaera arauemailea dela medio, propoliari atxikitzen zaizkion onurak ez daudenez frogatuak, 1924/2006 Erregelamenduaren 5.1.a artikulua kontuan izanik, zientifikoki onurak deuseztatuta gelditzen dira. Beraz, ez dagoenez zientifikoki frogatua ez genioke mamiari propoliarik gehituko, ez genukeelako osasunari dagokionez ezer lortuko. Hori gutxi balitz, etiketan propoliaren propietate onuragarriak azpimarratuko bagenituzke, hauek beteko direla ziurtatuz bezeroari iruzur egiten ariko ginatke, ez daudelako frogatuak. Hau guztia jakinik ez zaigu etikoa iruditzen propolia gehitzea.



## **BIBLIOGRAFIA**

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?qid=1581674451927&uri=CELEX:32004R08>

[52](#)

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?qid=1581674543528&uri=CELEX:32005R20>

[73](#)

<https://www.boe.es/buscar/pdf/1999/BOE-A-1999-17996-consolidado.pdf>

<https://www.consumer.es/eu/alimentacion-eu/propolia-ona-al-da-osasunerako.html>

<https://medlineplus.gov/spanish/druginfo/natural/390.html>

<https://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2007:012:0003:0018:ES:PDF>

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32004R0852&from=ES>

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1999-17996>